

**SANFERMINETAN EKIPAJEEN ZAINDEGI-ZERBITZUAREN PREZIO PUBLIKOAK ERREGULATZEN DITUEN  
ARAUA**

**13. araua**

Oinarria

1. artikulua.- Ordainarazpen hau Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen Lehen Tituluko III. Kapituluako 2. Ataleko 2. azpiatalean xedatutakoari jarraikiz eta haren 28. artikuluan ageri den baimenaren babesean ezarri da.

Ordaintzeko betebeharra

2. artikulua.- Ekipajeen zaindegi-zerbitzua erabiltzen duten partikularrek ordaindu beharko dute prezio publiko hau.

3. artikulua.- Ordaindu beharra fardela gordetzeko uzten den une berean sortzen da, eta fardel hori ezin izanen da berriro jaso sortutako zenbatekoa ordaindu gabe.

Tarifak

4. artikulua.- Aplikatu beharreko tarifak Arau honen Eranskinean daude jasota, eta barne hartuko dute, behar izanez gero, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuota.

Kudeaketarako eta diru-bilketarako arauak

5. artikulua.- Prezio publikoak Udalak zerbitzuaren ustiapena enpresa bati esleitu eta horrek berak bilduko ditu.

6. artikulua.- Enpresa esleipendunak apuntatu beharko ditu, banan-banan eta taloitegi bidez, ekipaje-zaindegian egiten diren gordailu- eta kobratze-eragiketak, erabiltzaileei behar den ordezkagiria emanen zaielarik.

Gordailuen taloitegiko ondoak Alor eskudunean aurkeztuko dira, kontratua bukatutakoan, kobratutakoaren egiaztagiri modura, bildutako dirua Udal Diruzaintzan sartu dela egiaztatzen duten agiriekin batera.

7. artikulua.- Enpresa esleipendunak burutu duen jardueraren gaineko txostena aurkeztu beharko du, kontratua amaitu eta 30 eguneko epean. Halaber, behin txostena onetsita, behar den faktura ere eman beharko du.

**TARIFA-ERANSKINA**

- Fardel eta eguneko	4,60 euro
----------------------	-----------